



**Eta zuk,
ba al duzu galderarik?**

Ilustrazioak: Onintza Etxebeste Liras



Harremanetarako:

oihartzunfilosofikoa@gmail.com


Abaraxka



Hipatia



Ehuntze



FILOSOFIA

Filosofia ikasi baino gehiago, filosofatu

Batzuetan kostatu egiten zaigu geure burua, ingurua, mundua... ulertzea. Informazio zaparradaren aurrean aukeraketa egokia egitea ere ez da lan erraza izaten; eta, erantzunak topatu nahian, galderak pilatzen zaizkigu maiz.

Zer da egia? Zer da justizia? Zer dago ongi, eta zer gaizki? Errealitate bakarra dago, edo begiradak adina errealitate? Zergatik pentsatzen dut pentsatzen dudana? Zer dago nire iritzien atzean? Zer egin dezaket galdera hauekin guztiekin?

Horixe da, hain zuzen, GALDEREN AGORAn, Haur Filosofiaren bidez egin nahi duguna: galderak partekatu eta elkarrekin filosofatu, pentsamendu kritiko, sortzaile eta arretatsua garatuz. Batzuetan erantzunak topatuko ditugu; beste galdera batzuk, askotan; inora iritsi gabe ere geratuko gara, behin baino gehiagotan. Baina bidean asko ikasiko dugu, eta **artearekin** gozatuz, gainera!

ARTEA

Sormena eta pentsamendua, bata bestearen pizgarri

Zergatik gustatzen zaigu gizakioi sortzea? Ezinbestekoa ote dugu bizitzeko? Zer da artea? Saio hauetan hainbat arte diziplina ezagutu eta horiekin gozatzeko aukera izango dugu. Pentsalari ez ezik, sortzaile ere izango gara. Pentsamenduaren bidez sormena, eta sormenaren bidez pentsamendua elikatuko ditugu, artea eta filosofia uztartuz, herriko artistak lagun eta **herria** bera ardatz.

HERRIA

Herriko gaztetxoak, herriko artistak, herriko gaiak

Heldu, gazte zein haur, denok gara herritar, eta, herritar garen heinean, herriaz hausnartu eta herrian parte hartzea dagokigu. Baina noiz eta nola egin dezakegu hori? GALDEREN AGORAn herriko elkarte, eragile edo politikariek esku artean dituzten kezka eta galderen inguruan ere filosofatuko dugu, ahal den neurrian herrian eragiteko asmoz. Iritzietara mugatu ordez, argudioak bilduko ditugu denon artean; azaletik ibili gabe, galdera bakoitzaren oinarrira iristen saiatuko gara, bere luze, zabal eta sakonean.

SAIOETAKO GIDARI ETA SORTZAILEAK

- Idoia Beratarbide
- Jon Martin
- Ainara Lasa
- Pello Añorga
- Alaia Gaztelumendi
- Oier Guillan
- Izar Aizpuru
- Luix Mitxelena
- Onintza Etxebeste
- Ander Iriarte
- Malen Elizasu
- Xabi Salaberria

NOIZ

Igande arratsaldeetan, hilean behin, 17:00etatik 19:00etara.

* Lehenengo saioa: **urtarrilak 28**.

NON

Abaraxka ludotekan, Ehuntze espazioan eta Hipatiaren lorategian.

* Lehenengo saioa: **Abaraxkan**.

NOLA

Saio bakoitza sortzaile batekin eta gai baten inguruan izango da, eta sormen proposamenaren arabera zehaztuko da espazioa.



IZEN-EMATEA

 (Azken eguna: urtarrilak 24)

Izen-abizenak: _____

Maila: _____ Ikastetxea: _____

Telefono zenbakia: _____

* **Izena emateko lekua:** Haurtzaro eta Elizaldeko idazkaritzak edo Abaraxka.

* **Taldea osatzeko** 10 gaztetxo beharko dira gutxienez eta 20 gehienez.